

23/11

irizpena

JENDAURREKO IKUSKIZUNEI
ETA JOLAS-JARDUEREI BURUZKO
Legearen Aurreproiektuaren gainekoa

Bilbo, 2011ko abuztuaren 23an



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao. Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: Cuatrobarras

Inprenta: Imprenta Gestingraf

Lege Gordailua: BI-48-2012



*i*rizpenda 23/11

I. AURREKARIAK

2011ko azaroaren 4an, Herrizaingo Sailaren idazki bat sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Horren bidez, jendaurreko ikuskizunei eta jolas-jarduerei buruzko Legearen aurreproiektuari buruzko txosten bat eskatu zuen Sailak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legeak 3.1.a) artikuluan ezartzen duenaren arabera.

“Legearen xedea da EAEko lurraldean egiten diren jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzea, bai eta horretarako erabiltzen diren establezimendu publikoek eta espazio irekiek bete beharreko baldintzak eta betekizunak arautzea ere”.

23/11 

Berehala, agiriaren kopia bana bidali zitzaion Batzordeko osoko bilkurako kide guztiei, beren proposamenak eta iritzia azaltzeko eta horiek zegokion Lan Batzordeari igortzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezarritakoaren arabera.

Gizarte Garapenerako Batzordea 2011ko abenduaren 21ean bildu zen, irizpen-aurreproiektuaren lehen proposamena eztabaidatzeko asmoz. Egun berean onartu zuen Batzordeak irizpen-proiektua, eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 2011ko abenduaren osoko bilkurara eraman zen; aho batez onartu zuten.

II. EDUKIA

Lege-aurreproiektuari buruzko testua honela osaturik dago: zioen adierazpena; 68 artikulua, bost titulutan eta xedapen gehigarri batean banatuak; sei xedapen iragankor; xedapen indargabetzaile bat; eta hiru azken xedapen.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA.- ARAUAREN XEDEA, EREMUA ETA HELBURUAK

1. artikulua. Helburua
2. artikulua. Definizioak
3. artikulua. Aplikazio-eremua
4. artikulua. Helburuak
5. artikulua. Debekuak

II. KAPITULUA.- IKUSKIZUN PUBLIKOEN ETA AISIALDIKO JARDUEREN EUSKAL KONTSEILUA

6. artikulua. Ikuskizun Publikoen eta Aisialdiko Jardueren Euskal Kontseilua

II. TITULUA.- JENDAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS-JARDUEREN ANTOLAKETA ETA GARAPENA

I. KAPITULUA.- ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

7. artikulua. Ikusleen eta erabiltzaileen eskubideak
8. artikulua. Ikusleen eta erabiltzaileen betebeharrak
9. artikulua. Beste interesdun batzuen eskubideak
10. artikulua. Antolatzaileen eta titularren eskubideak
11. artikulua. Titularren eta antolatzaileen betebeharrak
12. artikulua. Artista, interprete eta egileen eta gainerako langileen eskubideak.
13. artikulua. Artista, interprete eta egileen eta gainerako langileen betebeharrak.

II. KAPITULUA.- IKUSKIZUNEN ETA LOKALEN BETEKIZUNAK ETA BALDINTZAK

14. artikulua. Baldintza teknikoak.
15. artikulua. Informazioa eta publizitatea.
16. artikulua. Sarrera eta jarlekuen salmenta.
17. artikulua. Ordutegia.
18. artikulua. Adingabeen babes.

- 19. artikulua. Sarbidea zaintzeko eta kontrolatzeko betebeharrak
- 20. artikulua. Onarpen-baldintzak
- 21. artikulua. Lehen laguntzak eta larrialdietako ebakuazioa
- 22. artikulua. Aseguruak eta fidantzak

III. TITULUA.- ESKU-HARTZE ADMINISTRATIBOA

I KAPITULUA: XEDAPEN ARRUNTAK

- 23. artikulua.- Arau orokorra
- 24. artikulua.- Salbuespenak
- 25. artikulua.- Ardurapeko adierazpenen araubide juridikoa
- 26. artikulua.- Aurretiko komunikazioen araubide juridikoa
- 27. artikulua.- Baimenen araubide juridikoa
- 28. artikulua.- Baimenen aldiberekotasuna

23/11 

II. KAPITULUA.- BATEKO ETA BESTEKO BAIMENEN ARAUBIDE ZEHATZA

- 1. Atala.- ESTABLEZIMENDU PUBLIKOAK IREKITZEA.
- 29. artikulua. Establezimendu publikoak irekitzea
- 30. artikulua. Izapidetzea
- 31. artikulua. Jardueren bateragarritasuna

Bigarren Atala.- AURRETIKO BESTE ESKU-HARTZE BATZUK.

- 32. artikulua. Baimenak
- 33. artikulua. Aurretiko komunikazioa
- 34. artikulua. Eskumenak
- 35. artikulua. Terrazak
- 36. artikulua. Espazio irekietako edo bide publikoetako ikuskizunak eta jarduerak
- 37. artikulua. Azoka-esparruetan instalatzen diren barrakak eta jolasak
- 38. artikulua. Establezimendu eta lokaletako aldizkako ikuskizunak eta jolas-jarduerak
- 39. artikulua. Jendearentzat zabalik dauden araubide bereziko esta-blezimenduak
- 40. artikulua. Zezen-ikuskizunak eta zezenketak
- 41. artikulua.- Piroteknia-ikuskizunak

IV. TITULUA.- ZAINZA, KONTROLA ETA IKUSKAPENA

I. KAPITULUA: XEDAPEN ARRUNTAK

42. artikulua. Mantentzeko eta berrikusteko betebeharra

43. artikulua. Egiaztapenak eta kontrolak

II. KAPITULUA.- IKUSKAPENA

44. artikulua. Ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumenak

45. artikulua. Ikuskapenen irizpideak eta koordinazioa

46. artikulua. Ikuskapenaren praktika

III. KAPITULUA.- SEGURTASUN-NEURRIAK

47. artikulua. Polizi zaintza

48. artikulua. Debekatzea eta etetea

49. artikulua. Ixtea eta zigilatzea

50. artikulua. Konfiskatzea

51. artikulua. Agintaritza eskudunak

V. TITULUA.- ZEHATZEKO ARAUBIDEA

I. KAPITULUA.- ARAU-HAUSTEAK

52. artikulua. Arau-hauste administratiboak

53. artikulua. Arau-hauste oso larriak

54. artikulua. Arau-hauste larriak

55. artikulua. Arau-hauste arinak

56. artikulua. Erantzuleak

II. KAPITULUA.- ZEHAPENAK

57. artikulua. Arau-hauste oso larriei dagozkien zehapenak

58. artikulua. Arau-hauste larriei dagozkien zehapenak

59. artikulua. Arau-hauste arinei dagozkien zehapenak

60. artikulua. Zehapenen mailaketa

III. KAPITULUA.- PRESKRIPZIOA ETA IRAUNGITZEA

61. artikulua.- Arau-hausteen preskripzioa

62. artikulua.- Zehapenen preskripzioa

63. artikulua.- Prozedura iraungitzea

IV. KAPITULUA.- ESKUMENA ETA PROZEDURA

64. artikulua. Zehatzeko ahala duten organo eskudunak

65. artikulua. Zehatzeko prozedura

- 66. artikulua. Behin-behineko neurriak
- 67. artikulua. Funtzionario ikuskatzaileek kautelazko neurriak hartzea, salbuespenez
- 68. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen erregistroa

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. Kiroleko indarkeriaren aurkako estatuko araudiaren aplikazioa.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA. Araubide iragankorra.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. Lizentziak eta baimenak.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. Legea zerbitzu baimendu edo gaituak ematen dituztenei aplikatzea.

LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. Ikuskizun Publikoen eta Aisialdiko Jardueren Euskal Kontseilua.

BOSGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. Fidantzen zenbatekoa.

SEIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. Zehatzeko espedienteak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

LEHENENGO AZKEN XEDAPENA. Polizi zaintzari dagozkion tasak.

BIGARREN AZKEN XEDAPENA. Zehapenen zenbatekoen eguneratzea.

HIRUGARREN AZKEN XEDAPENA. Indarrean sartzea.

23/11 

Zioen adierazpena

Lehenik eta behin, zioen adierazpenean esaten da Estatutuaren 10.38 artikulua, hau da, EAERI ikuskizunen arloan eskumen eskusiboa ematen dion artikulua ezarritakoari jarraituz eman dela Legea.

Gaitze horren babesean onartu zen jendaurreko ikuskizunei eta jolas-jarduerei buruzko azaroaren 10eko 4/1994 Legea.

Alabaina, 15 urte baino gehiago igaro direlarik eta barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua inspiratu duten printzipioak kontuan hartuta, saihestezina da horren orde bestelagatik ematea.

Zuzentarauaren ildoari jarraituz, lege-aurreproiektuak bide ematen die establezimendu-askatasunari eta zerbitzuak emateko askatasunari, eta, arau orokor gisa, Administrazioerikiko komunikazioen edo ardurapeko adierazpenen araubidea ezartzen du, orain arteko administrazio-baimenen araubide orokorraren ordean. Horren bidez, beharrezkoak ez diren izapide burokratikoak ezabatzen dira eta prozedura errazten da; hala, bide ematen dio ekimen partikularriari, baina segurtasuna eta bizikidetzaren zaintzeko interes orokorra begiratzea beharrezkoa dela ahaztu gabe.

23/11*i*

Ondoren, adierazpenean esaten da Legea funtsezko parametro batzuk kontuan hartuta eratu dela: a) Askatasunaren printzipioaren eta segurtasun eta bizikidetzaren printzipioaren arteko oreka. b) Herritarrei protagonismoa ematea, erabiltzaile edo ikusle gisa dituzten eskubide eta betebeharren gutun bat ezarrita. c) Ikuskizun eta jolas-jardueren titularrei eta antolatzaileei beren enpresa-jarduera betetzeko modua erraztea, ardurapeko adierazpenen edo aurretiko komunikazioen arau orokorra ezarrita. Baimenen araubidea arau orokorraren salbuespen bat da, eta hirugarrenei arrisku edo enbarazu gehiago egiten zaien egoerentzako gordetzen da. d) Lokal publikoen segurtasun-estandar teknikoak indartzea. e) Subsidiariorotasun-printzipioa eta herritarrekiko hurbiltasuna kontuan hartuta, kontrol-ekumen gehienak udalen esku utzi dira, arrazoi objektiboengatik Eusko Jaurlaritzako organo eskudunentzat gorde diren kasuetan izan ezik. Azkenik, Ikuskizun Publikoen eta Aisialdiko Jardueren Euskal Kontseilua administrazio publikoen arteko elkarlana eta lankidetzaren instituzionalizatzen dituen organo gisa eratu da.

Xedapenak

I. Titulua.- Xedapen Orokorrak atalean, sei artikulua jasotzen dira, bi kapitulutan banatuta:

I. Kapituluak.- Arauaren xedea, eremua eta helburuak atalak 1etik 15era bitarteko artikulua biltzen ditu, eta honako hau arautzen du:

- Legearen xedea: EAEko lurraldean egiten diren jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzea, bai eta horretarako erabiltzen diren establezimendu publikoek eta espazio irekiek bete beharreko baldintzak eta betekizunak arautzea ere.
- Kontzeptu jakin batzuen definizioak: Ikuskizun publikoak, jolas-jarduerak, establezimendu publikoak, espazio irekiak, estabelzimendu publikoen titularrak, antolatzaileak eta artistak, interpreteak eta egileak.
- Aplikazio-eremua eta eremu horretatik kanpokoak (ospakizun hertsiki pribatuak), katalogo ez oso zehatz bat eranskin gisa sartzea eta debekuak.
- Legearen helburua: jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egokiro garatzeko modua egitea, parte-hartzaileak eta etorleak arriskuan jarri gabe, herritarren bizikidetzan bermatzeko moduan eta segurtasuna eta ordena publikoa nahasi gabe.
- Paraleloki, printzipio bideratzaileak aurkeztu dira. a) Bizikidetzan baketsu eta ordenatua ikuskizunetako eta jolas-jardueretako ikusleen, parte-hartzaileen eta erabiltzaileen artean. b) Halako jarduerak egiten diren lekuetatik gertu bizi diren pertsonen eskubideak errespetatzea. c) Jendaurreko ikuskizun edo jolas-jardueretako ikusleen, erabiltzaileen eta langileen segurtasuna eta osasuna.

23/11 

II. Kapituluak 6. artikulua jasotzen du; horren bidez, ***Ikuskizun Publikoen eta Aisialdiko Jardueren Euskal Kontseilua*** arautzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoei Lege honek arautzen dituen arloen gainean aholkuak, azterketak, koordinazioa eta kontseiluak ematen dizkien organoa. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari atxikirik dago.

II. Titulua.- Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren antolaketa eta garapena atalak 16 artikulua dakartza, bi kapitulutan banatuak.

I. Kapituluak.- Eskubideak eta betebeharrak (7-13. artikulua) atalak ikusleen eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak jasotzen

ditu, bai eta antolatzaileenak, titularrenak, artistenak, interprete eta egileenak eta gainerako langileenak ere. Gainera, beren interes legitimoak eragiten dieten aldetik interesdun diren beste pertsona batzuen eskubideak ere jasotzen ditu.

II. Kapituluak.– Ikuskizun eta lokalen betekizunak eta baldintzak


(14-22. artikulua) atalean, sormenezko ikuskizun eta jarduerak bete behar dituzten betekizunak eta baldintzak arautzen dira, bai eta halakoetarako establezimendu edo espazioek bete beharrekoak ere. Hainbat artikulua azaltzen dira eskaintzen diren zerbitzuen segurtasuna etakalitateanahiz beroriek eskaintzen dituzten pertsonen erantzukizuna eta profesionaltasuna indartzeko alderdiak jorratzen dituztenak, bai eta jendearen eskubideak zaintzeko alderdiak jorratzen dituztenak ere. Hala, alderdi hauek arautzen dira: ikusleei eta erabiltzaileei establezimenduen, ikuskizunen eta jolas-jardueren inguruan eman behar zaien informazioa eta publizitatea; sarreraren salmenta; sarbidea zaintzeko eta kontrolatzeko betebeharrak; onarpen-baldintzak eta onarpen-eskubidea; lehen laguntzen eta larrialdietako ebakuazioaren arloko betebeharrak; eta aseguruaren eta fidantzen eskakizuna. Era berean, kontuan hartu dira haurrak eta gazteak babesteko neurri bereziak.

Hau da, baldintza teknikoak, informazio eta publizitateari buruzko baldintzak, sarreraren eta jarlekuen salmentari buruzkoak, ordutegiari buruzkoak, adingabeen babesari buruzkoak, sarbidea zaintzeko eta kontrolatzeko betebeharrari buruzkoak, onarpen-baldintzei buruzkoak, lehen laguntzei eta larrialdietako ebakuazioari buruzkoak eta aseguru eta fidatzen buruzkoak.

III. Tituluak.- Esku-hartze Administrazioa atalak 19 artikulua dakartza, bi kapitulutan banatuak.

I. Kapituluak. Xedapen arruntak (23-28. artikulua) atalean, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko jendearentzat zabalik dauden establezimenduak irekitzeko araubidea arautzen da, bai eta halako ikuskizunak eta jarduerak antolatzekoa ere.

Arau orokor gisa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko jendearentzat zabalik dauden establezimenduak irekitzeko, bai eta halako ikuskizun eta jarduerak antolatzeke ere, aurrez ardurapeko adierazpen bat aurkeztu behar du titularrak edo antolatzaileak, Lege honek aurretiko komunikazio bat izatea edo aurretiaz administrazio-baimena lortzea berariaz exijitzen duen kasuetan izan ezik.



Ardurapeko adierazpenen araubide juridikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Establezimenduaren titularrak edo ikuskizunaren antolatzaileak honako hau adierazten du, bere ardurapean:... • Zenbat egun lehenago: 10 egun 	
Aurretiko komunikazioen araubide juridikoa HALA AURREIKUSI DENEAN	<ul style="list-style-type: none"> • Dokumentu horren bidez, interesdunak Administrazio publiko eskudunari bere datuen eta gainerako berekizunen berri ematen dio. • Zenbat egun lehenago: 10 egun. 	
Baimenen araubide juridikoa EGITEA NAHITAEZKOA DENEAN	Administrazio eskuduna UDALA denean: UDAL LIZENTZIA	Administrazio eskuduna EUSKO JAURLARITZA denean:BAIMENA

II. Kapitulu. Bateko eta besteko baimenen araubide berezia atala bi zatitan banatzen da.

I. Atala. Establezimenduak irekitzea (29-31. artikulua)

- ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEARI buruz dihardu.
- Beharrezkoa da aurrez titularrak edo antolatzaileak ardurapeko adierazpen bat egitea; hurrengo puntuan ezartzen diren kasuetan, ostera, udal lizentzia beharko da.

▷ **Udal lizentzia:**

- Arrisku handikotzat eta zama termiko orokor handikotzat jotzen diren establezimenduak irekitzea
- Ingurumen-kontrolari buruzko legediarekin bat etorritz jarduera-lizentzia behar duten establezimenduak.
- Ezaugarri jakin batzuk dituzten eta kultur balioa duten eraikinak.
- Lege honen arabera araubide berezikoak diren establezimendu publikoak.

Halaber, aipatzen da udalek jakinaren gainean jarri behar dutela ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza, 2.500etik gora pertsonarentzako lekua duten establezimenduei, zezen-plazei eta arauz ezartzen diren beste batzuei dagokienez lizentziak emateko espedienteak hasi badituzte, bai eta haien titulartasunekoak direlako lizentziarik behar ez duten lokalen proiektu teknikoak izapidetu badituzte ere.

2.500etik gora pertsonarentzako lekua duten establezimendu publiko horietako bat irekiz gero, Legeak aurreikusten du ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoak proiektuei buruzko txostena egin ahalko duela, neurri zuzentzaileak ezarrita. Era berean, ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoak esku-hartze administratiboa egin ahalko du araubide bereziko establezimenduen kasuan, udal lizentziei erantsita.

II. Atala. Aurretiazko beste esku-hartze batzuk (32-41. artikulua).

- IKUSKIZUNAK ETA JARDUERAK egiteari buruz dihardu.
- Salbuespen batzuk alde batera utzita, udal agintaritzek izango dute eskumena ardurapeko adierazpenak edo aurretiko komunikazio soilak jasotzeko eta administrazio-baimena igortzeko.
- Administrazio-baimena behar da hurrengo taulan zehazten diren ikuskizunak eta/edo jarduerak egiteko.

BAIMENA BEHAR DUTEN IKUSKIZUNAK ETA/EDO JARDUERAK	ADMINISTRAZIO ESKUDUNA	
a) Aire zabalean edo bide publikoan dauden terrazak edo instalazioak.	Udala	
b) Jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak egitea, erabilera publikoko espazio irekiak okupatuz, betiere ikuskizun edo jarduera horiek egiteko edo jendea babesteko instalazio edo egitura finko nahiz aldi baterakoak, eramangarriak edo desmuntagarriak behar badira.	Udala	Ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza, baldin eta ikuskizuna edo jarduera egingo den herria 20.000 biztanletik gorakoa bada eta establezimenduak edo esparruak 1.000 pertsona baino gehiagorentzako lekua badu.
c) Jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak noizean behin edo aldizka egitea, lizentziak edo ardurapeko adierazpenak jarduerarako babesten ez dituen lokaletan.		
d) Jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak horietarako lizentzia edo ardurapeko adierazpena duten establezimenduetan egitea, baldin eta berekin badakarte baldintza tekniko orokorrak aldatzea, segurtasunari eragitea, edukiera handitzea edo agertokiak instalatzea.		
e) Barrakak eta jolasak.	Udala	
f) Ordutegi berezia izateagatik eta beste baldintza berezi batzuk izateagatik araubide berezikoak diren establezimendu publikoak irekitzea.	Ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza	
g) Zezen-ikuskizunak eta zezenketak, erregelamendu bidez ardurapeko adierazpena edo aurretiko komunikazioa behar dela ezartzen den kasuetan izan ezik.		
h) Artifizio piroteknikoak jaurti edo erretzen diren ikuskizunak, erregelamendu bidez ardurapeko adierazpena edo aurretiko komunikazioa behar dela ezartzen den kasuetan izan ezik.		
i) Hiriarteko bideetatik igarotzen diren kirol-probak.	Trafikoaren eta bide-segurtasunaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza	

BAIMENA BEHAR DUTEN IKUSKIZUNAK ETA/EDO JARDUERAK	ADMINISTRAZIO ESKUDUNA	
j) Lege espezifikoaren arabera baimena beharrezkoa duten gainerako jendaurreko ikuskizun edo jolas-jarduera guztiak.	Udala	Ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza, betiere ikuskizuna edo jarduera egingo den herria 20.000 biztanletik gorakoa bada eta establezimenduak edo esparruak 1.000 pertsona baino gehiagorentzako lekua badu.

23/11j

IV. Titulua.- Zainaza, kontrola eta ikuskapena atalak 10 artikulua jasotzen ditu, hiru kapitulutan banatuak.

I. Kapitula.- Xedapen arruntak (42. eta 43. artikulua) atalaren abiapuntua da titularrak edo antolatzaileak mantendu eta berrikusi behar dituela jarduera has zedin baimentzeko zio izan ziren baldintzak, administrazioak ikuskatzeko duen ahala eragotzi gabe.

II. Kapitula.- Ikuskapena (44-46. artikulua) atalean, arau orokor gisa ezartzen da ardurapeko adierazpena edo aurretiko komunikazioa jasotzeko edo, hala badagokio, baimena emateko ardura duen organoari eman zaiola ikuskatzeko eskumena. Hori alde batera utzita, ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoa legez gaituta dago establezimendu publikoak ikuskatzeko, lokalaren edukiera eta kokatua dagoen herriko biztanleria kontuan hartuta.

Bestalde, adierazten da ezinbestekoa dela lankidetzaren mekanismoak ezartzea, ikuskapenean alferrikako disfuntzioak edo bikoiztasunak saihesteko; horretarako, legeak aurreikusten du Eusko Jaurlaritzak eta udalek batean sustatuko dituztela ikuskapen-planak eta -programak, dagozkion jarduketak koordinatzeko eta antzeko ikuskapen-irizpideak eta -metodologiak aplikatzeko.

II. Kapitularia.- Segurtasun-neurriak (47-51. artikulua) atalean, polizia administratiboaren neurriak arautzen dira, ez ezinbestean zehatzeko araubideari lotuak, eta horien artean ikuskizunak edo jolas-jarduerak egiten ari diren bitartean ikusleen edo erabiltzaileen segurtasuna babesteko polizi zaintza berezia izateko aukera, esate baterako futbol edo saskibalo partidetan gertatzen den bezala. Ondore horietarako, tasen eta prezio publikoen legea aldatzea aurreikusten da.

Halaber, ikuskizun eta jarduerak noiz debekatu eta eten, itxi eta zigilatu, eta konfiskatu ahalko diren arautzen da.

V. Titularia.- Zehatzeko araubidea atalak 17 artikulua jasotzen ditu, lau kapitulutan.

23/11 

I. Kapitularia.- Arau-hausteak (52-56. artikulua). Legeak arau-hauste oso larriak, larriak eta arinak sailkatzen ditu, proportzionaltasun-irizpideen arabera.

Kapitulu horretan erantzukizunak ere ezartzen ditu.

I. Kapitularia.- Zehapenak (57-60. artikulua). Aurreko kasuan bezala, legeak zehapen-mota hauek sailkatzen ditu: oso larriak, larriak eta arinak.

Nabarmenezkoada, arau-hausteak ikusleek, etorleek edo erabiltzaileek eginak badira, zehapen ekonomikoez gain gizarteratzeko edo berriz hezteko zehapenak ezarri ahalko direla, jarrera alda dezaten lortzeko, araua haustea ekarri duten egitatei dagokienez. Edo, beste kasu batzuetan, zehapenaren ordezkotzat neurri gisa.

III. Kapitularia (61-63. artikulua) arau-hausteen eta zehapenen Preskripzio eta iraugipenari buruzkoa da.

IV. Kapitularia.- Eskumena eta prozedura (66-68. artikulua) atalak alderdi hauek zehazten ditu: hala udalek nola Eusko Jaurlaritzak zehatzeko zer eskumen duten, espedienteak irekitzean elkarri horren

JENDAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS-JARDUEREN ETA ESTABLEZIMENDU PUBLIKOEN KATALOGOA	
I.- JENDAURREKO IKUSKIZUNAK	II.- JOLAS-JARDUERAK
Ikuskizun zinematografikoak Antzerki-ikuskitunak Musika-ikuskitunak Zirku-ikuskitunak Zezen--ikuskitunak Kirol-ikuskitunak Erakusketa-ikuskitunak Ikuskizun piroteknikoak eta su artifizialak	1. Zorte, desafio eta zorizko jokoak 2. Olgetazko jolasak 3. Jolas-atrakzioak 4. Herri-zezenketak 5. Uretako jolas-jarduerak 6. Ostalaritzako eta aisialdiko jarduerak. 7. Catering-jarduerak 8. Kultur eta gizarte jarduerak 9. Jarduera zoologiko, botaniko eta geologikoak 10. Jai-jarduera herrikoi edo tradizionalak 11. Kirol-jarduerak
III. ESTABLEZIMENDU PUBLIKOAK	
A. ESTABLECIMIENTOS DE ESPECTÁCULOS PÚBLICOS	B. ESTABLECIMIENTOS DE ACTIVIDADES RECREATIVAS:
1. Kulturalak eta artistikoak: 1.1. Zinema-aretoak a) Zinema tradizionalak b) Areto askoko zinemak c) Udako edo aire zabaleko zinemak d) Autozinemak e) Zineklubak. f) X zinemak 1.2. Antzokiak a) Antzokiak b) Aire zabaleko antzerkiak c) Aldi baterako antzerkiak d) Kafe-teatroak 1.3. Entzunaretoak 1.4. Zezen-plazak 1.5. Biltzarretarako pabiloiak 1.6. Kontzertu-aretoak 1.7. Erakusketa eta hitzaldietarako aretoak 1.8. Erabilera anitzeko aretoak 1.9. Kultur etxeak	1. Jokorako establezimenduak eta lokalak a) Joko-kasinoak b) Bingo-aretoak c) Joko-aretoak d) Apustu-lokalak e) Hipodromoak f) Kanodromoak 2. Jolas-establezimenduak a) Jolas-aretoak b) Zibergelak eta ziberkafetegiak c) Aisialdirako eta dibertsiorako zentroak d) Bolatokiak e) Haurren ospakizunetarako aretoak f) Ur-parkeak 3. Jolas-atrakzioko establezimenduak a) Jolas-parkeak eta parke tematikoak b) Haur-parkeak c) Ferietako jolasak 4. Kirol-aisiarako erabilera duten establezimenduak a) Kirolguneak b) Gimnasioak c) Igerileku publikoak

**JENDAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS-JARDUEREN ETA ESTABLEZIMENDU
PUBLIKOEN KATALOGOA**

III. ESTABLEZIMENDU PUBLIKOAK

A. ESTABLECIMIENTOS DE ESPECTÁCULOS PÚBLICOS

2. Aisialdi eta dibertsiorako aretoak:
- 2.1. Ikuskizun-kafeak
 - 2.2. Ikuskizun-jatetxeak
 - 2.3. Zirkuak
 - 2.4. Azoka-pabiloiak
 - 2.5. Horien pareko beste lokal eta instalazio batzuk
3. Kirol-establezimenduak
- a) Estadioak
 - b) Pilotalekuak
 - c) Abiadura-zirkuituak
 - d) Kirol-pabiloiak
 - e) Kirol-ikuskizunetarako aldi baterako instalazioak
 - f) Aldi baterako hipodromoak

B. ESTABLECIMIENTOS DE ACTIVIDADES RECREATIVAS:

5. Dantza-establezimenduak
- a) Jai-aretoak
 - b) Dantzalekuak
 - c) Gazteentzako dantzalekuak
6. Kultur eta gizarte jardueretarako establezimenduak
- a) Museoak
 - b) Liburutegiak
 - c) Ludotekak
 - d) Bideotekak
 - e) Hemerrotekak
 - f) Erakusketa-aretoak
 - g) Hitzaldi-aretoak
 - h) Erakusketa eta biltzarretarako jauregiak
 - i) Liburu-azokak
7. Azoka-esparruak eta herri-dantzaldiak
8. Jarduera zoologiko, botaniko eta geologikoetarako establezimenduak
- a) Parke zoologikoak
 - b) Akuarioak
 - c) Terrariumak
 - d) Parke edo gunee botanikoak, geologikoak edo arkeologikoak
9. Ostalaritza eta sukaldaritzako establezimenduak:
- a) Jatetxeak
 - b) Autozerbitzuak
 - c) Kafetegiak
 - d) Tabernak
 - e) Kiosko-tabernak
 - f) Taberna bereziak, pubak eta musika-tabernak
 - g) Txokoak eta elkarte gastronomikoak
 - h) Horien pareko beste lokal edo instalazio batzuk
11. Klub bereziak
12. Aisialdirako eta dibertsiorako establezimenduak:
- a) Erretzaileentzako klub pribatuak
 - b) Gazte-lonjak

berri emateko betebeharra dutela eta arauak aplikatzeko bide emango duen arau-hauste eta zehapenen erregistro bat izan behar dela, esate baterako arauak berriz hautsi diren baloratzeko edo desgaituntza-zehapenak betetzen direla zaintzeko.

Azkenik, xedapen gehigarriak eta xedapen iragankorrak, indargabetzailea eta azken xedapenak alde batera utzita, Legeak eranskin bat ezartzen du, eta, bertan, Legearen aplikazio-eremua zehazten duen jendaurreko ikuskizunen, jolas-jardueren eta establezimendu publikoen katalogoa jasotzen da.

23/11*i*

III. OHARRAK

III.1 Gogoeta orokorrak

Arauaren testuingurua eta justifikazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzen dituen indarreko lege-araua 1995ekoa da (4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, jendaurreko ikuskizunei eta jolas-jarduerari buruzkoa).

Alabaina, duela hamabost urtetik izandako aldaketa soziokultural, demografiko eta ekonomikoek (biztanleriaren zahartzea, etorkinen ugaritzea, gizarte-ohitura berriak, aisialdi- eta jolas-modu berriak, aisia eta kultura gizartera zabaltzea...), bai eta arau aldetik izandakoek ere, zeinak barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua inspiratu duten printzipioen ondorio baitira, hainbestearainoko eraldaketa ekarri dute, non ezinbestekoa baita indarrean dagoen araudia berriro pentsatzea eta horren ordeztu Lege berri bat ezartzea.

Gertatutako aldaketa sozio-ekonomikoak

Zalantzarik gabe, aisia eta kultura ezinbesteko jarduera bihurtu dira, eta gero eta leku esanguratsuagoa hartzen dute gure bizitzetan.

Denbora gehiago eskaintzen diegu, eta, paraleloki, aisialdi- eta jolas-modu berriak agertzen joan dira, bai eta aisialdirako eta jolas-jardueretarako espazio berriak ere; zenbaitetan, ez dira egoten antolaketa nahasia duten antolatzaile edo ondasunei loturik. Gainera, sendotuz joan dira gaueko aisialdia eta aire zabaleko udako makrojaldia musikalak, eta terrazak eta mahai hankabakarrak ugarituz joan dira bide publikoan —batez ere establezimendu publikoen barruan erretzea debekatu denetik—.

Batez besteko gizarte-denbora, aisialdiko jarduera-mota eta sexua									
	1998			2003			2008		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Kirol-praktikak	0,09	0,13	0,06	0,1	0,13	0,07	0,12	0,18	0,07
Paseoak, txangoak	1,03	1,1	0,57	1,0	1,04	0,57	0,55	1,02	0,49
Ordenagailu-aren eta beste ekipamendu informatiko bartzuen erabilera	0	0	0	0,03	0,04	0,02	0,03	0,05	0,02
Interneten erabilera	0	0	0	0,04	0,06	0,02	0,1	0,14	0,07
Guztira aisialdi aktiboa eta kirolak	1,12	1,23	1,02	1,17	1,27	1,08	1,21	1,38	1,05
Irakurketa, telebista eta irratia	2,26	2,31	2,21	2,05	2,11	2	2,38	2,48	2,28
Jarduerarik ez	0,09	0,08	0,09	0,19	0,16	0,21	0,07	0,06	0,08
Ikuskizunak	0,05	0,05	0,04	0,05	0,06	0,05	0,04	0,04	0,03
Jolasak	0,14	0,18	0,1	0,08	0,1	0,05	0,07	0,09	0,06
Arte-zale-tasunak eta bestelakoak	0	0	0	0,02	0,03	0,01	0,02	0,02	0,02
Aisialdi pasiboa guztira	2,54	3,03	2,45	2,39	2,46	2,33	2,58	3,1	2,48
AISIALDIA GUZTIRA	4,06			3,56			4,19		

Unitatea: >= 16 urteko biztanleek jarduera bati eskaintzen dioten batez besteko denbora (orduak eta minutuak egunean)Iturria: Eustat. Denbora-aurrekontuen Inkesta, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 2010eko Memoria Sozioekonomikoa.

Kontuan izan behar da, halaber, teknologia berrien goraldiak eta Interneten erabilerak kultur portaeretan izan duen eragina; izan ere, ohiko espazio publikoarekin zerikusirik ez duen aisialdi sozial bati ireki diote atea.

Hala, esate baterako, Eustat-en Denbora-aurrekontuen inkestako¹ datuek erakusten dute EAEko 16 urteko eta hortik gorako biztanleek 2008an 2003an baino 23 minutu baino gehiago eskaini ziotela aisialdiari (4 ordu eta 19 minutu, 3 ordu eta 56 minuturen ordean). Gainera, nahiago izan dute aisialdi pasiboa aktiboa baino. 2008ko datuek azaltzen dute lehenari egunean batez beste 2 ordu eta 58 minutu eskaintzen zaizkiola, eta aisialdi aktiboari, berriz, ordu bat eta 21 minutu.

23/11*i*

Ikuspuntu ekonomikotik, Kultura Ministerioaren urtekariko datuen arabera², 2008an Euskal Administrazio Autonomikoak kulturaren likidatutako gastua 112,2 milioi euro izan ziren, 2007an baino 4,3 milioi gehiago; hots, % 4ko igoera izan da. Gastua zertarako erabili den kontuan hartuta, EAEn, 12,2 milioi euroetatik % 26,8 ondasun eta zerbitzu kulturaletarako erabili ziren 2008an (% 29 aurreko urtean), % 13,3 arte plastiko, eszeniko eta musikaletarako; % 7,6 liburu eta ikus-entzunezkoetarako, eta ez dago informaziorik gainerako % 52,3aren inguruan.

Bestalde, urtekariak 2008an kulturaren likidatutako 398,3 milioi euroko gastu bat jasotzen du EAEko "Toki Administrazio" gisa sailkatzen

¹Inkesta horretan, aisialdi aktibo gisa hartzen dira kirol-praktikak, paseoak eta txangoak, ordenagailuaren eta beste ekipamendu informatiko batzuen erabilera, bai eta Interneten erabilera ere. Aisialdi pasibotzat hartzen dira, ostera, hedabideak eta informazio-bideak (irakurtzea, telebista ikustea eta irratia entzutea), ez ezer egitea, ikuskizunetara joatea, jokoak eta arte-zaletasunak.

²Ikerketa horren eremuan, kultur sektore hauek sartu dira: ondasun eta zerbitzu kulturalak (monumentuak, museoak, arkeologia-aztarnategiak, agiritegiak eta liburutegiak), arte plastikoak eta eszenikoak (erakusketak, argazkilaritza, musika, dantza eta antzerkia), liburuak eta ikus-entzunezkoak (zinema, bideoak eta musika grabatua), diziplinartekoak (kultur sustapena eta hedapena, administrazioa eta zerbitzu orokorrak eta hizkuntza-politika).

Etxeetako gastua ondasun eta zerbitzu kulturaletan, Autonomia Erkidegoen arabera								
	Balio absolutua (milioika eurotan)		Gastuaren ehunekoa ondasun eta zerbitzuen gutzizkoan (milioika eurotan)		Batez bestekoa etxeke (euroak)		Batez bestekoa pertsonako (euroak)	
	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008
Guztira Estatuan	16.612,5	16.694,6	3,2	3,1	1.020,4	997,2	372,2	368,3
Andaluzia	2.374,8	2.555,5	2,9	3,0	870,3	904,1	298,6	316,6
Aragoi	451,0	464,0	3,1	3,0	913,2	920,4	354,0	358,6
Asturias	387,7	435,1	3,3	3,4	947,3	1.049,0	368,6	413,4
Balearrak	435,8	417,3	3,2	3,1	1.127,5	1.137,9	425,3	396,1
Kanariak	752,2	709,5	3,6	3,4	1.069,8	971,7	373,9	345,6
Kantabria	214,2	201,8	3,3	3,1	1.053,5	988,4	380,4	354,4
Gaztela eta Leon	795,9	794,3	2,9	2,8	833,2	823,7	322,9	320,6
Gaztela-Mantxa	506,9	553,1	2,6	2,8	742,3	777,7	261,3	278,2
Katalunia	3.383,1	3.233,7	3,7	3,4	1.262,5	1.173,7	474,7	447,3
Valentziako Erkidegoa	1.897,0	1.820,0	3,4	3,3	1.044,6	970,1	394,5	369,2
Extremadura	249,1	235,5	2,5	2,4	652,1	606,9	233,0	219,6
Galizia	802,8	815,9	2,8	2,7	832,5	820,4	295,8	299,6
Madril	2.797,7	2.871,2	3,4	3,4	1.279,1	1.276,5	459,5	462,0
Murtzia	358,6	373,0	2,4	2,5	759,0	764,5	258,6	261,9
Nafarroa	242,8	244,8	3,1	3,0	1.069,7	1.072,1	409,2	406,2
EAE	842,6	833,6	3,0	2,9	1.016,4	989,8	398,6	393,0
Errioxa	85,1	103,1	2,5	3,0	728,3	868,3	277,6	331,4
Zeuta eta Melilla	35,3	33,3	2,7	2,6	825,2	762,6	254,3	237,3

Iturria: KULTURA MINISTERIOA, Kulturaren egindako Finantzaketaren eta Gastu Publikoaren Estatistikak, Kultura Estatistikaren Urtekaria, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 2010eko Memoria Sozioekonomikoa.

duen horretan; hots, % 7,1eko igoera izan da, aurreko urtearekin alderatuz. EAEko Toki Administrazioaren barruan, 298,2 milioi euro udalei dagozkie (gutzizkoaren % 72,6) eta 106,7 milioi foru aldundiei. Gastuaren erabilerari dagokionez, % 90,7 kultura sustatzeko eta hedatzeko erabili da, eta gainerakoa arkeologiarako eta ondare historiko-artistikoa babesteko.

Eta, azkenik, baina ez garrantzi gutxiagokoa, etxeko ondasun eta zerbitzu kulturaletan egin den batez besteko gastua 2008. urtean 989,8 eurokoa izan da; eta pertsonako batez besteko gastua, berriz, 393 eurokoa izan da 2008an, 2007an baino 5,6€ gutxiago.

Nahiz eta datu horiek denek ez duten jasotzen ikuskizun eta jolas-jardueren araudiak eragindako sektore osoa, agerian uzten sektorearen garrantzi sozioekonomikoa.

Aisialdi-, kultura- eta jolas-establezimenduak soilik hartuz gero, azken 15 urtean aldaketa garrantzitsuak izan direla ikusten da.

23/11j

- Kultura- eta arte-jardueretarako establezimenduei dagokienez, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:
 1. Administrazio publikoek azken urteetan ahalegina egin dutela herritarrei kultur zerbitzu ezin hobeak eskaintzeko, hala nola bizikletak eta ludotekak, museoak eta jarduera zoologiko, botaniko eta geologikoetarako establezimenduak.
 2. Antzezteko espazio eszeniko egonkorak ugaritu egin dira, nahiz eta edukiera txikiagoko aretoak izan.
 3. Dauden zezen-plaza bakanetako batzuk (egonkorak kopuru aldetik, horietan egiten diren ferien antzera) bereziki prestatu dira beste era bateko ikuskizunak edo jarduerak egin ahal izateko.
- Kirol-establezimenduak, oro har, edukiera handikoak dira (izan futbol-zelaiak edo –estadioak, pilotalekuak edo kiroldegia), eta kirolaz besteko jarduera batzuetarako ere erabili ohi dira.
- Jolas-jardueretarako establezimenduei dagokienez, zeinak ikuskizunetarako establezimenduak ez bezala titulartasun pribatukoak izan ohi baitira, honako hau ikusten da:

1. Ugaritu egin direla kirol-aisialdirako establezimenduak, hala nola gimnasioak, bizitza osasuntsua eta itxura estetikoa lantzeko gizarte-joerari lotuak.
2. Joko-establezimenduak, izan kasinoak, bingoak, hipodromoak, joko-aretoak edo apustu-lokalak, egonkorak dira kopuru aldetik, joko-araudiarekin bat etorritz halako lokalen plangintzak mugak ezartzen baititu, zorizko jokoen eskaintza kontrolatzeko.
3. 1995etik jolas-establezimendu berriak sortu dira, hala nola ziberaretoak eta ziberkafetegiak, ordenagailuak erabiltzeko denbora eskaintzea xede dutenak, euskarri informatiko bidez jolasteko edo Internetera sartzeko.
4. Berariaz haurren aisialdirako erabiltzen diren lokal berriak agertu dira, hala nola txikipark deritzenak eta haur-ospakizunetarako aretoak.
5. Dantza-establezimenduak, halanola jai-aretoeketa dantzalekuek bilakaera jakin bat izan dute, gizarte-erabilerak aldatzearen eta gaueko aisialdiko ordutegia arautzearen ondorioz. Baliteke dantza ez izatea jendea era horretako lokaletara erakartzeko elementu bat, garai batean izan zen bezala; izan ere, taberna edo pub musikaletan ere modu berean eskaintzen da musika eta, kasuan-kasuan, dantzatzeko aukera. Gaur egun, gauez hartzen duten ordu-tarteak bereizten ditu, egiaz, halako negoziokoak. Beraz, tabernak eta pubak ixten direnean bideratzen da dantzalekuetara gaueko aisialdiaren eskaera.
6. Adingabeentzako light dantzalekuak, nahiz eta gaur-gaurkoz ez duten araudi egokirik Euskal Autonomia Erkidegoan, kaleko edanaren ordezkotako aukera gisa agertzen hasi dira nerabeentzat; horien bereizgarria da bertan ez dela kontsumitzen ez alkoholik eta ez tabakorik eta nerabeak

beren adin bereko jendearekin dibertitzen direla. Eskuarki, adingabeentzako saioak dituzten dantzalekuak dira; beraz, ikuskaritza publikoak bereziki zaindu behar du araudia bete dadila, eta enpresaburuek, berriz, sartu-atera dabiltzan nerabeek ez dezatela edari alkoholdunik sar aretoan.

7. Ez dira ugaritu, beste eremu geografiko batzuetan gertatu denaz bestela, jolas tematikoak edo uretako jolas-jarduerak dituzten aisialdi-parke itzelak.

- Aparteko aipamena merezi behar dute azoka-esparruek eta bertako jolas-atrakzioek. Gaur egun ez dago araudi tekniko industrialik barrakek eta azoketako beste instalazioek bete behar dituzten segurtasun-baldintzen inguruan; izan ere, eskuarki, eskulangintzako mekanismoak izan ohi dituzte gehiago. Hori ez da eragozpen udalek arreta muturreraino eraman dezaten halako jolasak jendearentzat zabaldu aurretik ikuskapenak egin daitezen exijitzeko orduan.
- Ostalaritzako eta sukaldaritzako establezimenduak dira araudi honi loturiko establezimenduen artetik sektorerik ugariena. Sektorean garrantzi erabakigarria dute, ez soilik kopuru aldetik, baizik eta baita duten pisu ekonomikoagatik ere, gizarte honetako aisialdi-jardueren zati handi bat bideratzen dutelako, eta, gainera, turismoa erakartzeko faktore ahaltzu bat direlako, beste jarduera ekonomiko batzuen motorra.
- Testuinguru horretan, nabarmentzekoa da euskal gastronomiaren garrantzi kulturalen ondorioz gizarte-ohituren globalizazioak ez duela berekin ekarri sukaldaritzako establezimendu tradizionalen ordeztu halako sustrairik ez duten bestelako establezimenduak ezartzea, nahiz eta sartu diren nazioarteko hainbat janari-mota eta janari lasterra eskaintzen dituzten establezimenduak ere.

AISIALDI, KULTURA ETA JOLASERAKO ESTABLEZIMENDUEN EHUNEKOA EAE-N, EJSN-09			
	2008	2009	2010
Establezimenduak guztira	203.911	202.093	191.057
I. Ostalaritza (%)	7,44	7,50	7,71
R. Arte-, jolas- eta entretanimendu-jarduerak (%)	1,79	1,82	1,85
Iturria: DIRAE, Eustat eta geuk egina			

Hain zuzen, 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalak (EJSN-09), nazioarteko joerei jarraituz (*ikus NACE Rev 2*), lehenengoz sartu du, modu esplizituan, R Kategoria, arte-, jolas- eta entretanimendu-jarduerari dagokiena_ ez da agertzen EJSN-1993koan, eta 2003an ñabarturik agertzen da, baina ez alderdi horretan_ , eta horrek arrasto bat ematen du halako jarduerak ikuspegi ekonomikotik izaten hasi diren garrantziaren inguruan³.

23/11

Erantsitako taulan ikusten den bezala, hizpide ditugun establezimenduek guztizkoan duten pisua handitu egin da gaur egungo krisi garaiotan ere, nahiz eta ez den gauza bera gertatzen balio absolutuetan. Hala, ostalaritza-sektoreko establezimenduak % 7,44 ziren 2008an eta orain % 7,71 dira; arte-, jolas- eta entretanimendu-jarduerak, berriz, % 1,78tik % 1,85era igo dira.

Arauetan egindako aldaketak

Gaur egun, botere publikoek jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueren inguruan duten interesa ezin da izan horien edukia kontrolatzea, desegokia bailitzateke hori Zuzenbidezko Estatuak berezko duen askatasunen erregimenean, baizik eta horietan parte hartzen duten ikusleen eta erabiltzaileen segurtasuna eta osasuna bermatzea, ikusleen, parte-hartzaileen eta erabiltzaileen arteko bizikidetza baketsu eta ordenatua izatea, eta halako jarduerak egiten diren lekuetatik gertu bizi diren pertsonen eskubideak errespetatzea.

³ Ikusi Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 10. zenbakiko Aldizkaria.

Alde horretatik, ikuskizunen arloko eskumen eksklusiboarekin bat etorritik, jendaurreko ikuskizunei eta jolas-jarduerei azaroaren 103ko 4/1995 Legea onartu zen. Lege horrek arau-garapen partzialak izan ditu, besteak beste aseguru-eskakizunari, ordutegiari eta halako alderdiei dagokienez, eta arloko zenbait araudi ere egin dira zezen-eta piroteknia-ikuskizunen arloan, baina lege-aurreikuspenak ez dira modu sistematikoan garatu; hori dela eta, arau aldetik dauden hutsuneetako batzuk iraganeko estatu-legediarekin osatzen dira gaur egun ere (1982koa eta lehenagokoa, zenbait kasutan).

23/11*i*

Lege hori egokia bada ere zenbait alderditan, halako zerbitzuak ematen dituen sektorearen dinamismoak eta gizarte-ohituren bilakaerak beharrezko egiten dute denboraren joanaren ondorioz zenbait alderditan zaharkiturik geratu den araudi hori egokitzea, eta, hala, gizartearen eskari jakin batzuen eta zerbitzuetako sektorearen beraren eskaerei erantzutea.

Hain zuzen, aisialdi-jarduera berrietako zenbaitek gatazkak sor ditzakete alderdi hauen inguruan: kutsadura akustikoa eta ordena nahastea (zarata, irekitzeko eta ixteko ordutegiak...), segurtasun-arazoak, haurren eta nerabeen babesa (adingabeak jai-areto, dantzaleku, diskoteka eta pubetan sartzzea eta bertan egotea, ikuskizunak adinaren arabera sailkatzea...), sarrerak emateko sistemak eta abar; beraz, horiek ere kontuan hartu behar dira.

Hori nahikoa arrazoi bada indarrean dagoen araudia berrikusteko, baina beharrezkoa da, gainera, araudia barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EEE Zuzentarauaren arabera aldatzeko eskakizunetara egokitzea etabarne-ordenamenduratasposizioak egitea. Araudi horren abiapuntuko premisa zerbitzu-jarduerak egiteko establezimenduen askatasuna da; beraz, hobe da Administrazioarekiko komunikazioen eta ardurapeko adierazpenen araubidea, orain arte orokorturik egon den administrazio-baimenen araubidea baino. Zerbitzuei buruzko Zuzentarauak, aldi berean, interesdunari prozedura soiltzearen eta izapideak erraztearen alde egiten du.

Arauaren balorazioa eta administrazio-baimenen araubideari buruzko gogoeta

Aurrez aipaturiko alderdiak kontuan hartuta, egoki irizten diogu azaroaren 10eko 4/1995 Legea ordeztari, eta egokia iruditzen zaigu gure iritzia emateko aurkeztu zaigun Lege-aurreproiektua izapidetzea, bai eta oreka bilatu nahi izatea ere askatasunaren eta segurtasun eta bizikidetzaren printzipioen artean, eta erabiltzaileentzat eta oro har jendearentzat eskubide eta betebeharren gutun bat ezartzea.

Nolanahi ere, nahiz eta zioen adierazpenean esaten den 2006/123/EE Zuzentaraua inspiratu duten printzipioei doitu zaiela eta horregatik Lege-aurreproiektu honek bultzatu egiten dituela establezimendu-askatasuna eta zerbitzuak emateko askatasuna, arau orokor gisa administrazio-baimenen araubide orokorraren ordezkari Administrazioarekiko komunikazioa edo ardurapeko adierazpena kontuan hartuta (horrek berekin dakar beharrezkoak ez diren izapide burokratikoak ezabatzea eta prozedura erraztea, herri-ekimenari bide emanez, baina segurtasuna eta bizikidetzaren zaintzeko interes orokorra begiratu egin behar dela ahaztu gabe), egia hauxe da: agintaritzaren eskudunek beretzat gordetzen dutela, gehiegitan, administrazio-baimenen araubidea.

Ondorioz, Batzorde honek iradokitzen du administrazio-baimenen araubide hori behar-beharrezkoak diren kasuetara muga dadila eta ez gaur egungo aurreproiektuaren ondorioz aplikatzen zaien guztiei.

III. 2 Gogoeta zehatzak

I. TITULUA. Xedapen orokorrak

II. KAPITULUA: Ikuskizun Publikoen eta Aisialdiko Jardueren Euskal Kontseilua

6 artikulua.- Ikuskizun Publikoen eta Aisialdiko Jardueren Euskal Kontseilua

Komenigarria iruditzen zaigu artikuluko 3. puntuan eragindako sektoreen gizarte-interesak ordezkatzan dituzten erakundeak gehitzea.

II. TITULUA. Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren antolaketa eta garapena

II. KAPITULUA. Ikuskizun eta lokalen betekizunak eta baldintzak

16. artikulua. Sarreraren eta jarlekuen salmenta

23/11*i*

- 1. puntuan ezartzen da sarreraren % 70 zuzenean saldu behar direla. Kontuan hartuta badirela sarrerak saltzeko bideak eta zerbitzu horiek banaketa eta are salmenta telematikoa egiteko kontratatzen direla, uste dugu ehuneko hori oso handia dela. Halaber, agerrarazi nahi dugu desberdina dela sarrerak saltzea eta jasotzea, eta hori ez dirudi Lege-aurreproiektuan bereizten denik.
- 4. puntuan debekatu egiten da errekarquarekin egiten den salmenta komisioiduna, baldin eta sarrerak saltzean hori ohiko jardunbidea bada eta kudeaketa-lanagatik saltzeko bideei onurak lortzeko modua ematen badie.

III. TITULUA. Esku-hartze administratiboa

Gogoeta orokorretan aipatu dugun bezala, nahiz eta zioen adierazpenean esaten den 2006/123/EE Zuzentaraua inspiratu duten printzipioei egokitu zaiela eta horregatik Lege-aurreproiektu honek bultzatu egiten dituela establezimendu-askatasuna eta zerbitzuak emateko askatasuna, arau orokor gisa administrazio-baimenen araubide orokorraren ordezkari Administrazioarekiko komunikazioa edo ardurapeko adierazpena kontuan hartuta, egia hauxe da: agintaritzak eskudunek beretzat gordetzen dutela, gehiegitan, administrazio-baimenen araubidea eta ez gaur egungo aurreproiektuaren ondorioz aplikatzen zaien guztiei.

I. KAPITULUA. Xedapen arruntak

25. artikulua. Ardurapeko adierazpenen araubide juridikoa eta 27. artikulua. Baimenen araubide juridikoa

Iradokitzen dugu 25. artikuluko 9. idatz-zatian eta 27. artikuluko 7. idatz-zatian "jendearentzat zabalik dagoen establezimendua" adierazpenaren ordez "jendearentzat zabaltzeko egokitu/egokia den establezimendua" jartzea.

*"25.9 artikulua. Administrazioak, interesduna entzun ondoren, ofizioz iraungitzat jo ditzake ardurapeko adierazpenaren ondoreak, baldin eta, aurkeztu eta sei hilabeteren buruan, jendearentzat zabalik dagoen establezimenduak **jendearentzat zabaltzeko egokitu/egokia den establezimenduan**, justifikatu gabeko arrazoiengatik, jarduerarik hasi ez bada edo edozein unetan jarduera urtebetetik gora geratu bada, modu jarraituan.*

23/11 

*"27.7 artikulua. Administrazioak iraungitzat jo ditzake baimenak, baldin eta, aurkeztu eta sei hilabeteren buruan, jendearentzat zabalik dagoen establezimenduak **jendearentzat zabaltzeko egokitu/egokia den establezimenduan**, justifikatu gabeko arrazoiengatik, jarduerarik hasi ez bada edo edozein unetan jarduera urtebetetik gora geratu bada, modu jarraituan.*

Izan ere, adierazpen hori behintzat zaila bada ulertzen, hizpide dituen lokaletan Administrazioak iraungitzat jo badu ardurapeko adierazpena edo irekitzeko eman duen baimena eta bertan jarduerarik egin ez bada.

II. KAPITULUA: Bateko eta besteko baimenen araubide zehatza.

36 artikulua.- Espazio irekietako edo bide publikoetako ikuskizunak eta jarduerak.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak uste du espazio irekietan edo bide publikoetan egiten diren ikuskizunek eta jarduerak askotan kutsadura akustikoa eragiten dutela eta horrek

bizikidetzari kalte egiten diola. Eta nahiz eta artikuluak ezartzen duen eragin akustikoari buruzko balorazio bat aurkeztu behar dela eta beharrezko neurriak hartu behar direla hori saihesteko, eskuarki ez dira betetzen.

Horregatik, uste dugu kontrol handiagoa izan behar dela. Eta, edonola ere, espazio irekietan eta bide publikoetan ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak egin aurretik, bizilagun kaltetuak informatu eta entzun behar direla.

IV. TITULUA. Zaintza, kontrola eta ikuskapena

23/11j

III. KAPITULUA: Segurtasun-neurriak

48. artikulua. Debekatzea eta etetea, 49. artikulua. Ixtea eta zigilatzea eta 50. artikulua. Konfiskatzea

Harritu egiten gaitu agintaritza judizialak ezin debekatzea eta etetea 48. artikuluan aurreikusitako kasuetan, ezin ixtea eta zigilatzea 49. artikuluko kasuetan, eta ezin konfiskatzea 50. artikuluko kasuetan.

V. TITULUA. Zehatzeko araubidea

I. KAPITULUA. Arau-haustek

Arau-haustek zenbakiturik agertzen dira, arau-hauslea nor den bereizi gabe. Beharbada teknika juridikoa hobetuko litzateke, baldin eta arau-haustek arau-hauslearen arabera bereiziko balira, zerrenda ordenatuta eta arau-hauslea identifikatuta.

54. artikulua. Arau-hauste larriak.

Eskubideen artean, bidegabea eta baztertzaila ez den errespetuzko tratu bat jasotzeko eskubidea agertzen da (7.f artikulua). Hori ez da kontu hutsala; izan ere, zoritxarrez, oraindik ere bereizkeriaz jokutzen da aurreproiektuaren barruan sartutako lokal-mota jakin bat

eskuratzeko orduan. Bidegabea eta baztertzaila ez den errespetuzko tratu bat jasotzeko eskubidea maiz urratzen da oraindik ere, batez ere jatorriagatik, sexu-orientazioagatik eta desgaitasunagatik.

Horregatik uste dugu "onarpen-eskubidea modu bidegabe, baztertzaila edo neurrigabeen baliatzeak" ez lukeela agertu behar arau-hauste larritzat (54.10), baizik eta oso arau-hauste larritzat, oinarriko eskubide bat urratzen duen aldetik.

IV. KAPITULUA. Eskumena eta prozedura

67 artikulua.- Funtzionario ikuskatzaileek kautelazko neurriak hartzea, salbuespenez.

23/11 

Uste dugu bidezkoa dela 4. idatz-zatian honako hau gehitzea: interesdunek aukera izango dutela zehatzeko prozedurarik abiarazi gabe deuseztatzen diren kautelazko neurriak hartzeko agintari eskudun izendatu diren pertsonen jatorriko administrazioaren aurka.

Bigarren xedapen iragankorra. Araubide iragankorra.

Akats baten berri eman nahi dugu. Xedapen iragankor hau lehenengoa litzateke eta ez bigarrena.

IV. ONDORIOAK

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak uste du egokia dela jendaurreko ikuskizunei eta jolas-jarduerei buruzko Legearen aurreproiektuari buruzko izapidetzea.

Bilbo, 2011ko abenduaren 23a

O.E. Presidentea
Juan María Otaegui Murua

Idazkari nagusia
Francisco José Huidobro Burgos